

HERRI BIZITZA BATZORDEAREN BILERA

Data: 2026-01-14 Bilera zenbakia:44

Bilera ordua eta lekua: 17:30

Parte-hartzaileak: Axier (Arbelaitz), Laura, Amaia (GE), Garazi (gazteak), Aitor, Nerea (udala)

LANDUTAKO GAI ORDENA


1. Jai batzordetik zehazteko gelditu ziren lanak.

Mozorro gaia 2026, proposamenak:

Aukeratua; “marrazki bizidunak”

Aukeratu 3 gustukoenak/ Elije tres opciones:

19 respuestas



Musika taldeak proposamenak.


Ostirala 18: Balantza erromeria

Larunbata 19: Bozkatuenak Mirua (6000+BEZ)

Brigade Loco, osteguna 15ean dute bilera, esaten digutenarekin idatzi dugu wasapean eta hortik erabaki.

Aukeratu 3 gustukoenak/ Elije tres opciones:

23 respuestas



Musika ekipoa zaharraren ordezkia, erosi da.

Edalontzi handi /txiki eta platerak erosi dira.

2. Hurrengo ekintzak herrian

U.31 talo jana: Talo jana aurretik masa egiten erakutsi nahi da erreleboa bermatzen joateko.

Osasun zikloa:

O.4 eta O.11 lehen sorospenak:

- EUSKARAZ: <https://forms.gle/FvGG67KzCedgcyhW7>

- ELEBITAN: <https://forms.gle/PBjUdhtz8NDFLpieA>

O. 7: Mendi irteera+ Kalaka jolasak.

O. 19-26: Zoru pelbikoa

3. Elkartetarik datozenak.

Truke taldea martxan jartzea proposatu da:

Ongi etorri "Itsasondoko truke" taldera, Itsasondoko herrian sorturiko eta kudeaturiko truke eta salmentarako taldera.

Talde honen helburua: gizartean barneraturik daukagun gehiegizko kontsumo ohituren aurrean, berrerabilpenari bide ematea da.

Talde honen arauak:

- Truke edo salmentarekin erlasionaturiko edukiak SOILIK partekatuko dira. EZ DA BESTELAKO MEZURIK ONARTUKO.

- Erabiltzen ez duzun tresna edo artikulurik baduzu, argazkia bidali behar duzu eta argazkiaren mezuan bertan salneurria eta aipamena jarri, adibidez, "emakumezkoen soinekoa, M neurria, soilik behin erabilia. 50€", beste adibide bat, "haurrentzako motoa, asko erabilia baina egoera onean, DOAN".

- Artikulu hori interesatzen zaion pertsonak, bere nahia talde honetan adierazi beharko du (adibidez "niretzat"), erantzuten lehena izango da artikulua eramango duena.

- Adostasun horretara iritsi ostean, bi kide horiek mezu pertsonalen bidez hitz egingo dute non eta noiz geratu trukea osatzeko. Talde honetan ez da horrelakorik idatziko.

- Artikuluren bat behar baduzu eta norbaitek etxean eduki dezakeela uste baduzu talde honetan ere galdetu dezakezu, adibidez, "Mugikorra izurratu zait eta egoera onean dagoen bat erosi nahiko nuke".

- Kide berriak gehitzen ditugunero mezu hau birbidaliko dugu.

Eskerrik asko kontsumo ohitura jasagarrien alde egiteagatik.

Begi onez ikusi da.

KTG kolektiboa:

Aurkezpena egin nahi dute herrian, kulturako bileran aipatuko dugu.

4. Udaletik datozenak.

- Elkarreketako dirulaguntza justifikazioak egin dira. Kontuan izan gastu justifikagarrien tiketak ekarri behar direla. Tikeetan zein ekintzen gastua den zehaztu behar da.
- Hitzarmenak berritzea; Guraso Elkartekoa tokatzen da. Bizi Nahi eta Arbelaitz 2026 arteko iraupena.
- Korrika batzordea: Aurkezpena dugu bilera honen ondoren, bertan hitz egingo dugu antolatuko gara.
- G004 autobus linea, Legorreta eta Itsasondoraino
Mugikortasuneko Departamentuak GO04a luzatu du Legorretara eta Itsasondora, ikasleak klasera iritsi ahal izatea bermatzeko. Urtarrilaren 19tik aurrera, 7:10ean

Ordiziatik ateratzen zen GO04 lineako autobusa 6:55ean irtengo da Legorretatik eta 7:00etan igaroko da Itsasondotik.

- 2026ko Udal egutegiaren balorazio; ilargiak falta dituela aipatu da.

Martxan egon diren galdetegian berri eman da

- Etxebizitza egoeraren galdetegia:

https://docs.google.com/forms/d/e/1FAIpQLSfzzxukf67r4Nmut7uo_ejnuVtS6IT_YkFBL1R3fzWrnVg80A/viewform

- Haur eta nerabeen zerbitzuaren galdetegia:

https://docs.google.com/forms/d/e/1FAIpQLSfzzxukf67r4Nmut7uo_ejnuVtS6IT_YkFBL1R3fzWrnVg80A/viewform

- Txokoa txukundu da, zaintzea eskatzen da.

5. Besteak

ETXEKO LANAK	NORK	NOIZKO
<i>Udal egutegiko balorazioa</i>		
<i>Txoko txukundu dela eta horrela mantentzeko eskatu</i>		
<i>Elkartetik etorri daitezkeen gaiak ekarri batzordera</i>		
HURRENGO BILERA		
Hurrengo bilera: HERRI BIZITZA BATZORDEA, OTSAILAK 4, Lehen sorospenak ikastaroa dagoenez 18:30ean egingo dugu.		